

Sarrera endogeno gauzatua

Jesus Rubio
EHUko irakaslea

Rubio (1996) lanean modelatu nuen nola enpresa instalatu bateko langileak koaliga litezkeen enpresa lehiakide (endogeno) modura merkaturatzeko. Enpresa instalatuak berak aukeratutako eta eskarmentatutako langile guztien koalizio homogeneoak antolaturiko enpresa hori kasu paradigmaticoan elkarte kooperatiboa izanen zen (hala zen aipatutako lanean). Artikulu honetan langileria heterogeneoa kontsideratuko dut bi produkzio-denbora dituen lehia endogenoko eredu batean. Oreka perfektuan, lehiakide potentzial endogeno kooperatiboa zein ez-kooperatiboa ere merkaturatu ahal izango da.

In Rubio (1996) I introduced a worker coalition from an incumbent firm as a potential entrant of endogenous type. I modelled a paradigmatic endogenous potential entrant as a cooperative firm promoted by the whole coalition of homogeneous workers previously selected and trained by the incumbent firm. In the present article I consider heterogeneous workers in a model of endogenous entry with two production times. In this model cooperative and non-cooperative endogenous rivals could enter the market in perfect equilibrium.

1. Sarrera*

Industria batzuetan irabazi supranormalak altuak izaten dira. Lehia-merkatuentzat aldarrikatu ohi diren barne-mekanismo autoerregulatuaren arabera, espero beharke gurek mozkinen usainean lehiakide berriak merkatura sartzea, harik eta etekin normalak izan arte. Baina lehia-merkatuaren paradigma teorikoaz harantzago, begibistakoa da praktikan kasu batzuetan, gehienetan ez esateagatik, ez dela hala gertatzen.

Aipatutako desbideraketa horren azalbide kontzeptuala merkatu-hesiek izaten dira. Merkatu-hesia izan liteke edozer ere ahalbidetzen baitu enpresa batek irabazi supranormalak eskura ditzan, Bain-en (1949) definizio aitzindariaren arabera. Emandako definizioaren arabera ez da batere harrizkoa merkatu-hesiek enpresa irabazi-maximotzaileen gogoan ibiltzea. Izan ere, merkatu-hesiren baten existentzia beharrezkoa baita irabazi bereziki altuak jaso ahal izateko, eta horixe nahi dute aipatutako enpresek.

Merkatu-hesi baten adibiderako har genezake lege bat zeinen ondorioz industria bat monopolio modura arautzen den. Gure egin dugun definizioaren arabera, halako lege bat merkatu-hesia izango gurek, hain zuzen, horrexek ahalbidetuko bailuke enpresa derrigor monopolistikoak irabazi supranormalak erdiestea (hain zuzen ere, monopolio-irabaziak). Aurrekoa ez litzateke industriako enpresek estrategikoki sortutako hesia, beraz, baizik eta enpresei ezartzen zaien hesia, hesi estruktural bat.

Horien aldean bestelako ekonomia-egoerak ditugu non enpresak eurak saiatzen diren merkatu-hesiek erakitzen. Bain dugu, berriro, lehen autorea berak formulatu baitzuen eredu bat non erakusten den enpresa instalatu batek eragotz lezakeela estrategikoki beste enpresa baten merkaturatzea, hain zuzen irabazi handiagoak eskuratu nahian. Bain-en eredu horretan, enpresa instalatu batek aukera estrategiko bat egiten du zeinen helburua baita enpresagai lehiakidea ez dadila sar, hain zuzen, enpresa instalatuak berak irabazi erlatiboki handiagoak eskuratu ahal izan ditzan. Hain zuzen, horrelako merkatu-hesiei zeinen sorreran agertzen baita enpresa/enpresagai jokaera estrategikoa deitu ohi zaie merkatu-hesi estrategikoak, enpresa lehiakideek estrategikoki sortuak baitira.

Merkatu-hesi estrategiko baten adibide bat ematearren, kontsidera dezagun ezen enpresa bat ikerkuntzaren bitartez berrikuntza teknologiko baten jabe egin dela; esan nahi baita, enpresa horrek ikerkuntzan eta garapenean inbertsioak egin dituela berrikuntza hori erdiesteko. Enpresak, gainera, bere lehia-estrategiaren barnean erabaki du aurkitutako berrikuntzaren lizentziarik inori ez ematea, zeinen ondorioz lehiakide guztiak merkatutik at gelditu diren (berrikuntza ez edukitzeak lehiatik kanpo uzten baititu). Bistan denez, aipatutako lehia-politika hori enpresa lehiakide potentzialentzat merkatu-hesi estrategikoa da; izan ere, bilatutako berrikuntza hori izan da enpresa instalatuari boterea eman diona merkatu-egokiera abantailatsuan aritzeko, zeinetatik segitzen diren etekin bereziki altuak.

* Zuzentzaileen oharra: UZTARO-n argitaratzen diren artikuluek morfologia, ortografia, semantika eta joskera zuzenduta agertzen dira. Artikulu honetan, aldiz, sintaxia zuzendu gabe utzi da, autoreak berriaz erabili duelakoan joskera-era hori.

Merkatu-hesiaren kontzeptuaren beharrezko osagarria enpresa lehiakide potentzialaren kontzeptua dugu. Zeren merkatu-hesia eranginkorra izanen bada, merkatu-hesi horren poderioz bestela merkatura litezkeen zenbait enpresa merkatuaren kanpoan gelditu beharko dira, enpresa instalatuen onurarako. Ikuspegi horren arabera, merkatu batean gertatzen den lehia ondo ulertu ahal izateko, ez dira soilik kontsideratu behar merkaturak lanean diren enpresak, baizik eta, halaber, merkatura sar litezkeen enpresak, horiek ere lehiakideak baitira. Azken horiei lehiakide potentzialak deitu ohi zaie, eta besteei lehiakide arituak edo instalatuak.

Lehiakide potentzial diren horiek baldintza batzuetan sar litezke merkaturak, definizioz, eta balizko merkaturatze horrek enpresa arituaren prebentziozko jokabidea eragin lezake. Esan nahi baita, lehiakide arituak lehiakide potentzialen balizko eragin hori (baldintza batzuetan gerta litekeen eragin hori) kontsideratu ohi dutela euren aukera irabazi-maximotzaileak egin orduko. Hortaz, merkaturatik kanpoko lehiakideak potentzialak izan arren, lehiakide potentzial horien eragina erreal-errealak izan daitezke.

Lehiakide potentzial guztiak ez dira sortzez berdinak, eta komenigarria da enpresagaia nola sortu den ezagutzea, bere ezaugarrien ulermena osoa izan dadin. Zeren sorrera ezberdinen arabera, lehiakide potentzialek (eta instalatuek ere) eragin ezberdinak sor baititzaizkete. Hortaz, lehiakidea egoki aztertzeo, oso esanguratsua da aztertzea nolako sorrera izan duen lehiakide potentzialak, handik segituko baita lehiakide horrek honelako edo halako ahaltasunak nola ahuleziak izan ditzakeela, eta ondorioz merkatu-hesi batzuekin edo besteekin sentsibillitate handiagoa edo txikiagoa izan dezakeela.

Lehiakide potentzialetatik sortzen diren enpresa sarberrien gainean egiten den sailkapen erabilienaren arabera, enpresak bi klasetan bereiz ditzakegu: (i) enpresa *de novo* sortuak; hau da, ezerezetik sorturiko enpresak; eta (ii) enpresa dibertsifikatuak; hau da, merkatu batean instalaturiko enpresa batek beste merkatu batean sorturiko enpresak; esan nahi baita, industria bateko enpresa instalatu batek bere adar berri bat sor lezakeela beste industria edo merkatu batean, bere jarduera dibertsifikatu nahian, eta hala sorturikoari esaten zaiola lehiakide dibertsifikatua (merkaturatu baino lehen lehiakide potentzial dibertsifikatua baita). Enpresa-klase hau bere kide ez-dibertsifikatuak baino indartsuagoa izaten da (beste enpresa baten itzalean sortua baita).

Lan honetan beste bi sailkapen erabiliko ditugu: lehiakide potentzial endogenoa versus exogenoa, eta lehiakide potentzial kooperatiboa versus kapitalista. Ikus ditzagun bi sailkapen hauen berezitasun batzuk.

1.1. Lehiakide potentzial endogenoa versus exogenoa

Merkatu-hesien literaturan, lehiakide potentzialen merkatu-sarrera oztopatzeko aukera estrategikoa aztertu da balizkatuz orokorrean ezen lehiakide potentzialak enpresa instalatu mehatxatuaren kanpotik zetozela. Pakes eta Nitzan (1983), Stewart (1994), Rubio (1996) eta Bárcena eta Rubio (2000) lanetan, aldiz, beste merkatu-sarrera modu baten aldaeren eraginak kontsideratu dira: sarrera endogenoaren aldaerak, alegia. Sarrera-modu honetan mehatxu potentziala enpresa instalatuaren barnetik dator, eta ez kanpotik, ohi bezala. Hain zuzen, enpresa ins-

talatuaren langile batek edo langile-koalizio batek, behin enpresa instalatuaren merkatua ezagutu duenean, edo behin giza kapital nahikoa bildu duenean, jatorrizko enpresa instalatua uzteko mehatxua egin lezake lehiakide berria sortzeko.

Zeren, bistan denez, enpresa instalatu baten langileak euren enpresariarekin akordio komenigarri batera ailegatu ezean, euren artean koaliga litezke eta enpresa modura sartu euren enpresa-amaren merkatuan: horrela sortutako lehiakidea endogenoa genuke. Lehiakide endogeno paradigmaticoa enpresa kapitalista baten langile guztien koalizioa da, zein enpresa-aman ongi trinkotu eta eskarmentatu ondoren (indibidual eta kolektiboki giza kapitala erdietsiz), bere aukera enpresarialaz konturatzen baita, elkarte kooperatibo modura merkaturatuz.

Enpresariak, bestalde, lehiakide potentzial endogenoa izanen den langileria estrategikoki aukera lezake (endogenotasunaren ondorioz), gero langile-koalizioarekiko negoziazio aurreikusgarrian egokiera abantailatsuan egon dadin. Hala endogenotasuna nola negoziazio-aukera ez dira izaten beste moduetako lehiakide potentzialen ezaugarrien artean.

Aurreko sailkapen horren nondik norakoa ilustratzeko asmotan, ikus dezagun ondoko kasu industrialen adibide-parea. Honela dio *Egunkaria* (1996) egunkariaren *zuzendariari* sailetik bildutako gutun batek, zeinen titulua den “Autobus monopolioa”:

Piper unibertsitarioen elkarteak 1995. urtean Urola-Kosta bailarako gazteekin sortu zen talde bat da. Bere helburuak ugariak ziren, baina guztien artean garrantzitsuena ikasleen beharrei ongien etortzen zitzaien autobus zerbitzu bat jartzea zen, beraien etxeetatik Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaiko kanpusetara joan zitezten.

1996ko uztaillean, ikasle batzuk Gipuzkoako kanpusetara joateko zerbitzuak ipintzea proposatu zuten. Ordura arte, ekintza horretaz La Guipuzcoana lineako autobus enpresa arduratzen zen. Urteetan zehar, bere hegemonia eta zonaldeko monopolioak zerbitzua onena ez izatea eragin zuen.

Ordutegiak ez ziren egokienak, autobusak jendez gainezka zihoazen, prezioak oso altuak ziren, bertako langileen konportamendu eta atentzioak distira egiten zuen bere faltagatik... Horren guztiaren aurrean, garraibide enpresa pribatu bat kontratatzea erabaki genuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren exigentzia guztiak beteaz. Baldintza guztiak bete arren, Gipuzkoako Foru Aldundiak ukatu egin digu posibilitate hau, benetan arrazoi kaskarrak emanaz eta gure galdekizun batzuetan erabat inplikaturik dagoela pentsarazi digularik: zer interes berezi dituzte garraibideko zerbitzu alternatibo bat ukatzeko? Eskubideen Estatu Demokratiko batean baldin bagaude, zergatik behartzen gaituzte guk nahi ez dugun zerbitzu bat erabiltzera? Sar al daiteke Administrazioa alderdien borondateen autonomian, beraien artean kontratu bat dagoelarik? Zergatik jaitsi ditu La Guipuzcoanak bere prezioak geure proposamenaren ondoren? Orain bere zerbitzua onuragarria bada, zer modutan egon da abusatzen urte hauetan guztietan?

Honela dio, bere aldetik, *Egunkaria* (1992) egunkaritik bildutako berri batek, zeinen izenburua baita “Encartacioneseko langileak kooperatiba eratzeke prest”:

Bilbo-Ezkerraldea-Meatzaldea autobus zerbitzua betetzen duen Encartaciones S.A.ko langileen ordezkariak, atzo, 74. greba eguna bete zutenean, “kooperatiba eratu eta zerbitzuarekin segitzeko prest” daudela esan zuten.

“Enpresari zerbitzua betetzeko baimena kendu eta guk geuk, langileok, kooperatiba osatu eta lana aurrera ateratzea ez litzateke hain zaila izango egungo baldintzetan” enpresa batzordeko kideen esanetan. Beraien iritziz, Bizkaiko Diputazioak aurren autobus zerbitzua betetzeko Encartacionesi emango dizkion 392 milioi pezetekin eta txartelen salmentarekin aurrera aterako lukete kooperatiba.

Encartaciones S.A.ko langileek bi hiletik gorako greba egin dute, TCSA konpainiako langileen soldatekin parekatzea eta beste lan baldintza arloko hobekuntza batzu jasoko lituzkeen hitzarmen propioa negoziatzea eskatzeko.

(...)

Enpresaria da negoziatzeko dagoen “oztopo nagusia” langileen hitzetan. (...) Orain arte hamar langile kaleratu dituzte Encartacionesetik, behin-behineko kontratua amaitu zaienean. Datorren astean beste zortzi izango dira horrela kalean geldituko diren langileak. Behin-behineko kontratuen arazoa negoziazio kolektiboan eztabaidatzeko asmoa agertu zuten langileen ordezkariak.

Azken adibide honetan aipatzen den autobus-gidarien kooperatiba hori merkaturatu sartuko balitz lehiakide berria endogenoa genuke, eta, hortaz, sartu aurretik lehiakide potentzial endogenoa izanen da. Aldiz, ikasleek kontratatu nahi duten enpresa merkaturatuko balitz lehiakide berri hori exogenoa genuke, ez baita enpresa horren langilegoa industrian jada instalatuta dagoen enpresa batetik etorri, bistan denez.

1.2. Lehiakide potentzial kapitalista versus kooperatiboa

Sailkapen honen arabera, lehiakide potentzial bat enpresa kapitalista edo kooperatibo modura sar liteke merkatu batean. Gure eredu teorikoan, enpresa kooperatiboa da halako hori non langile kontrataturik ez dagoen (hots, langileak enpresaren jabeak dira), eta non enpresak ematen dituen etekinak langileen artean berdintasunez banatzen diren. Aurrekoarekin kontrajarriz, enpresa kapitalista guretzat izanen da halako hori non existitzen baitira langile batzuk (ez derrigor guztiak) zein izan diren kontratatuak soldata negoziatu baten truke. Langile horiek ez dira, beraz, enpresaren jabeak eta ez dute etekinen parterik jasotzen.

Orokorrean, lehiakide potentzial eta merkatu-hesien literaturan, enpresagaiek antolaketa kapitalista izan dute. Aldiz, Sexton eta Sexton (1987), Stewart (1991) eta Rubio (1996) lanetan lehiakide potentzial kooperatiboak kontsideratu dira, hala nola halako lehiakideek sor litzaketen eragin estrategiko batzuk.

Aurreko adibideetara berriro joaz, han irakurri dugu nola ikasle batzuek euren garraio-beharrak beteko zituen autobus-enpresa pribatu bat kontratatu nahi zuten. Enpresa hori pribatua izateagatik ez da ez kapitalista ez kooperatiboa izanen (bata zein bestea pribatuak baitira). Bigarren adibidean, aldiz, ikus daiteke nola autobus-enpresaren langileak euren enpresa kooperatiboa antolatzeko asmotan dabiltzan, bertan denak ere langile eta jabe izanen liratekeelarik.

1.3. Lehiakide potentzial endogeno eta kooperatiboa

Lehiakide potentzial kooperatiboa edo lehiakide potentzial endogenoa gutxi landuak izan badira ere, lehiakide potentzial endogeno eta kooperatiboak izan ditzakeen berezitasunak formalki Rubioren (1996) lanean soilik landu dira. Adibideen arloan, Castaño-ren (1995) artikulua batean aurki dezakegu industria-kasu bat non enpresa kapitalista batean bildu eta trebatutako langile-koalizioak bere enpresa kooperatibo propioa sortu zuen. Horixe da lehiakide endogeno kooperatibo baten merkatu-sarrera.

Aipatutako industria-kasu horretan enpresak itsasontzietan konponketak egiten zituen. Adibide baterako, itsasontzi bat hondatu eta enpresa horri deitzen zioten esanez zein portutara joan behar zuten hura konpontzera. Jakindakoa enpresa honek 3 edo 4 langile bidaliko zituen esandako kaira, beharko zituzten lanabes eta materialekin batera, jakina, langileek bertan konpon zezaten barkua. 28 langile trebatu izatera ailegatu zen enpresa, baina 80ko hamarkadaren hasieran lanak gutxitu omen ziren nabarmen, krisi orokorra zela eta. Horrekin batean, zenbait langilek (euren aukerez konturatuta, nonbait) soldata-igoera eskatu zuten, hala nola bestelako lan-baldintzak hobetzea ere.

Enpresaria aspertu (sic) egin omen zen eta negozioa utzi. Langile batzuek hartu zuten lekukoa, ordea, hain zuzen 28 langileetatik 11 langilek erabaki zuten lan-elkarte kooperatibo bat eratzea eta euren ohiko merkatuan jarraitzea. Lehiakide potentzial endogeno kooperatiboa gauzatu zen.

Bazkide kooperatibistek kapital nahikoa ez zeukatelarik eta, gainera, aurreneko lanen kobrantza luzatu zitzaielarik, ezin izan zuten abiaburuko lau hilabeteetan "soldatarik" jaso. Autoreak dioenez, oso gogorra izan zen garai hura. 1990 urterako, ordea, egoera oso bestelakoa izatea lortu zuten. Lan-elkarte kooperatibo endogenoaren langileek kobratzen omen zuten ehuneko 20 gehiago ezen ez sektore berean eta kualifikazio berean enpresa kapitalistetan ziharduten langileek. Urte txarrak pasatu omen dituzte geroztik ere, baina langileek aurrera egin dute. Arrakastaren zio modura, autoreak aipatzen du langileen arteko giro ona eta bazkide guztien etengabeko prestakuntza, azken horrek enpresak hasieratik zeukan kalitate teknikoa bermatu duelarik.

Aurreko adibidean lehiakide endogeno kooperatiboek izaten dituzten ezaugarriak argi ikusten dira. Izan ere, halako lehiakide endogenoak langile-talde homogeneo, kualifikatu eta eraginkorrak izaten dira. Euren merkatuan lehiakortasun-maila altua daukate, eta jatorrizko enpresarentzat luze joko luke antzeko kalitatezko langile-koalizio ordezkagarria aurkitzeak. Baldintza hauetan langile-koalizioa osatu denean, zaila da jatorrizko enpresariarentzat bere langilarierekiko botere-posizioa mantentzea (merkatu sartzeko egin beharreko kapital fisikoaren inbertsioa oso handia ez bada, behintzat) eta negoziazio latza etor daiteke.

Negoiazio horretatik etor liteke jatorrizko enpresa kapitalista kooperatibo bihurtzea, edo kapitalista izaten jarraitu baina banaketa kooperatibo batekin, edo, akordiorik ezean, lehiakide endogeno kooperatiboaren merkatu-sarrera gauzatea. Hala gertatu da aurreko industria-kasuan, non enpresari kapitalistaren "aspertzearekin" enpresagai kooperatiboa enpresa bihurtu den. Egoera alternatibo batean

enpresari kapitalistak hasieratik aurreikus zezakeen zetorkion egoera latza, eta hasieratik bertatik bultzatzen zezakeen enpresa kooperatibo baten sarrera, non bera ere besteak bezalako lankidea izango zen. Azken hori da Rubio (1996) lanean aztertu nuen lehiakidetzaren endogeno kooperatiboaren eragin estrategikoa nagusia.

Aurreko adibidean argi gelditzen da merkaturatze endogenoak errealitate ekonomikoan gertatu egiten direla. Baina ikuspuntu teoriko batetik merkaturatze endogeno horien inguruko galderak ez dira falta. Urrutira joan gabe, gorago aipatutako Stewart-ek (1994) honako galdera planteatzen zuen:

An important feature of the model is that entry would be inefficient from the producer's point of view, and therefore never occurs in equilibrium. But in practice individuals do sometimes leave to set up rivals and an obvious topic for future research is to explain why such separations occur (1992. or.).

Hain zuzen, artikulu honetan aurkeztuko dugu eredu simple bat non enpresariaren eta lehiakide endogenoaren arteko erlazioaren baldintzak denboran zehar aldatzen diren, halatan non merkaturatze endogenoa oreka perfektuan gauzatuaren baita.

1.4. Lehiakide potentzial endogeno eta kapitalista

Rubio (1996) eta (1999) lanetan lehiakidetzaren endogeno kooperatiboa dagoen ereduak proposatu dira. Bertan langile guztiak berdin-berdinak dira, eta euren arteko interes-arazorik ez daukate. Baldintza horietan pentsatzekoa da arazorik gabe enpresa-sindikatu bat osatuko dutela, zeinek langile guztien izenean negoziatuko duen. Gogora gaitetzen gorago aipatu dugun autobus-enpresaren industria-kasuaz, non autobus-gidari guztiek elkarrekin adostasun batera ailegatzeko arazorik ez zeukaten noiz-eta lehiakide endogeno kooperatibo moduko proposamen bat egin behar zuten. Langileen sindikatuaren homogeneotasun horrek taldea trinkotu egiten du, eta lehiakide endogeno kooperatibo gisa ahalbidetu egiten du taldea.

Baina enpresa guztietan langileen taldea ez da beti homogeneoa. Enpresak lantzen duen sektorearen arabera, diferentzia teknologiko handiak egon daitezke, eta teknologiaren arabera, gerta daitezke langile-talde ezberdinak bereizi ahal izatea. Adibidez, alde batetik, langile kontratatu oso trebatu eta eskarmentatuak izan genitzake (kudeatzaileak, teknikoak edo zuzendariak), eta bestetik, prestakuntza berezirik gabeko esku-langileen taldea.

Langile trebatuek enpresaren merkatua eta jarduera oso ondo ezagutzen amaituko dute, hain zuzen, eurak kontratatu dituen enpresari kapitalistak baino askoz hobeto askotan. Langile horiek enpresa kudeatzen dutenak dira, eta enpresari zein merkatuari buruzko informazio estrategikoa erabiltzen dute euren eguneroko jardueran. Horrelako langileak ez dira inprobisatzen lan-merkatuan (euren aukera zein formazioa neketsua da hala denboran nola dirutan). Horien aldean, esan bezala, egon daitezke bigarren mota bateko langileak, eskulana egiten dutenak, trebakuntza handirik ez dutenak, zeinen ordezkapena erraza baita. Esan nahi baita, lan-merkatuan halako langile ez-trebatuen beharra arazorik

gabe eta kosturik gabe ase daitekeela, beti ere lehia-soldata ordainduz; eta hortik dator langile horien ahulezia negoziatzerakoan.

Enpresa batean (bere jardueraren eta teknologiaren ondorioz) halako bi langile-talde aurkitzen direnean, lehiakidetza endogenoaren mehatxua ez bide da kooperatiboa izanen. Mehatxurik etortzekotan, lehiakidetza endogenorako mehatxua langile trebatuen partetik etorriko litzateke; eta, etekinak langile ez-trebatuekin ez banatzearen, enpresa sarberria elkarte kapitalista izango da, ikusiko dugunez. Elkarte kapitalista berrian langile trebatu jabeek langile ez-trebatuak lan-merkatuan arazorik gabe, eta, hortaz, kosturik gabe, kontratatuko dituzte. Langile trebatuek euren betiko jardueretan jarraituko dute, jabe diren enpresa kudeatuz.

Bárcena-Ruiz eta Rubio (2000) lanean eredu bat proposatzen zen, non enpresa instalatu batean ari zen langile batek behar zuen informazioa bildu ostean, lehiakidetza endogeno kapitalista planteatzea zezakeen. Horrek, eredu hartan, enpresariaren partetik aukera informazional estrategikoa eragiten zuen, halako moldez non, enpresariak merkatuaren baldintza batzuetan informazio oso urria emango zion potentzialki mehatxu-egilea den bere langileari, azken honen jokaera aurreikusiz (lehiakidearen endogenotasunaz profitatuz).

Lan honetan balizkatuko dugu, ezen enpresariak bere enpresaren jarduera aurrera eraman ahal izateko bi langile-klase behar dituela: (i) langile trebatuen multzo bat, eta (ii) langile ez-trebatuen multzo bat. Kasu honetan soilik langile trebatuek egin ahal izanen dute lehiakidetza endogenoaren mehatxua (ez baitira ordezkagarriak, eta horrek ematen baitie negoziazio-boterea) zein elkarte kapitalista gisara gauzatuko baita.

2. Eredua

2.1. Langile ez-trebatuak, trebatuak eta enpresaria

Kontsidera dezagun E enpresari batek asmatu berri duela produktu bat zeinen merkaturatzeko behar baita enpresa baten antolakuntza. Produktu berria ekoizteko L langile trebatu behar dira, eta pL langile ez-trebatu, non L eta p zenbaki naturalak diren, eta non, gainera, $L > 1$ den (hots, langile trebatu bat baino gehiago behar dira).

Baldin $p = 0$ bada, interpretatuko dugu produktu berria ekoizteko behar den teknologiak ez duela langile ez-trebatuen beharrik; hots, produkzioa langile trebatuek gauzatu behar dutela (langile kualifikatuen beharra du enpresak). Gogora dezagun, adibidez, gorago aipatutako itsasontziak erreparatzeko enpresa hori, non langile guztiek maila tekniko altua behar zuten.

Bestalde $p > 0$ bada, interpretatuko dugu produktua ekoizteko behar den teknologiak langile ez-trebatuen lana eskatzen duela ($p = 10$ balitz adibidez, langile trebatu bakoitzeko 10 langile ez-trebatu arituko lirateke). Egokiera honetan L langile trebatuak tekniko kudeatzaileen modura irudika ditzakegu (merkatuak

eskatzen duen kalitate minimoak halako tekniko-kopuru baten atentzioa behar du). Bestalde pL langile ez-trebatu baino gutxiagorekin ezin da produkzioa burutu.

Azkenik, esan dezagun ezen langile trebatu eta ez-trebatuez gain badela beste agente bat eredu honetan: E enpresaria, zein ez den ez trebatua ez trebatugabea. E da ideia produktiboa izan duen hori, zeinek bere ideia merkaturatuko duen baldin gutxienez bere erreserba-irabazia $\Pi > 0$ erdiesteko gai bada, non Π izan daitekeen hain baxua nola nahi dugun, baina positiboa. Aurreraxeago, goitik ere mugatuko dugu Π .

2.2. Giza kapitala, fisikoa eta diru-sarrera

Gure merkatuan aritzeko, hala kapital fisikoa nola giza kapitala behar da.

Kapital fisikoari buruz, demagun produkzioa aurrera ateratzeko langile ez-trebatu bakoitzak bere makina behar duela, eta hortaz pL makina behar direla, zeinen guztien kostua $K > 0$ den. Hortaz $p > 0$ bada $K > 0$ izango dugu, eta $p = 0$ bada $K = 0$ izango dugu (teknologiak eskulangilerik behar ez duenean ez da kapital fisikoaren beharrik izanen).

Produkzioa aurrera atera ahal izateko L langile trebatuen lana ere behar da, esan bezala. Langile trebatuek ez dute makineriarik behar, baina bai kapital humanoa, euren lana egoki burutuko badute. Hain zuzen ere, langile trebatuek egoki lan egin ahal izateko behar duten giza kapitalaren inbertsioa $H > 0$ da; langile ez-trebatuek, ordea, ez dute halakorik behar.

Produkzioa gauzatuko balitz, 1 diru-sarrera normalizatua lortuko luke enpresak. Hau da, produkzioarako behar diren inbertsioak kendutakoan $1 - K - H = S < 1$ gelditzen da, non S baita enpresari gelditzen zaion diru-kantitatea behin kapital-inbertsioak kendutakoan.

2.3. Langile trebatuen eta ez-trebatuen lehia-soldata

Eskulangile ez-trebatuak lan-merkatuan arazorik batere gabe kontrata daitezke (ez dute denbora-kosturik ere) w_e soldata baten truk (euren lehia-soldataren truk, alegia). Demagun, normalizatuz, $w_e = 0$ dela. Langile trebatuak ere euren lan-merkatuan topa daitezke, baina euren erreserba-soldata ez-trebatuena baino altuagoa da, hain zuzen $w_t > 0$ da. Gainera langile horiek aurkitzea ez da zuzeneko kontua, izan ere, denbora eskatzen du.

2.4. Merkatua monopolio naturala da

Gure merkatua monopolioa da, izan ere, bi enpresa egongo balira merkatuan (bakoitza bere L langile trebatuekin eta bere pL langile ez-trebatuekin) orduan euretako bakoitzak lortuko lukeen duopolio-sarrera D izango litzateke, non betetzen den:

$$1/2 > Lw_t + pLw_e + H + K > D$$

Hau da, bi enpresek hornituko balute merkatua, bakoitzak lortuko lukeen irabazia negatiboa litzateke. Merkatua ez da oso handia, eta bertan bete behar

diren kalitate-baldintzek ez dute uzten enpresa batek baino gehiagok irabaziak lor ditzan.

Beraz, gure monopolio naturalak ematen duen etekina hauxe da: $S - Lw_t - pLw_e > 1/2$ da. Balizkatuko dugu, halaber, gorago aipatutako enpresariaren erreserba-irabazia Π dela, non $0 < \Pi < S - Lw_t - pLw_e (> 1/2)$ den (bestela enpresaria ez zen inoiz merkatuaz interesatuko).

2.5. Langile ezberdinen boterea eta sindikatu ezberdinak

Langile trebatuek boterea dute, ez baitira perfektuki ordezkagarriak. Gure ereduan langile horien ordezkapena ezin daiteke bat-batean egin, eta horrek langile horiei negoziatzeko aukera (boterea) ematen die. L langile trebatuak erabat berdinak dira euren artean eta ez da existitzen euren arteko interes-gatazkarik. Baldintza horietan balizka dezakegu L langile trebatuek talde trinko bat osatuko dutela, zeinek aho batez hartuko dituen bere erabakiak. T deituko diogu talde horri, eta bere jokaera-printzipioa izango da langile trebatuen pagamendua maximotzea.

Langile ez-trebatuak, aldiz, perfektuki ordezkagarriak dira, eta horrexegatik ez dute botererik. Hori dela eta, eredu honetan langile ez-trebatuen koalizioa ez dugu formalki modelatuko (formalizatuko bagenu ez luke eraginik).

2.6. Jokoa

Eredua joko ez-kooperatiboa da, non E enpresariak eta T langile trebatuen koalizioak hartzen baitute parte. Jokuak bi produkzio-data ditu, eta produkzio-data horietako bakoitzean bi etapa kontsideratuko ditugu.

2.6.1. Lehenengo produkzio-data

(i) Lehenengo produkzio-data honen lehenengo etapan E enpresariak T sindikatuari soldata-eskaintza bat egin beharko dio, $W_1 \in [0, S - \Pi]$, non W_1 baita sindikatuan dauden langile guztien soldaten batuketa. Bistan denez, eskaintza horretan enpresariak kontuan hartzen ditu produzitzekotan egin beharko litzuzkeen inbertsioak (S-n), hala nola bere erreserba-irabazia (Π -n), zeren, goragoko itsasontzien enpresan gertatzen zen antzera, enpresariak bere erreserba-irabazia jaso ezean negozioa utziko bailuke, "aspertuta".

(ii) Lehenengo produkzio-data honen bigarren etapan T langile trebatuen koalizioak E jokariaren soldata-eskaintzari erantzun beharko dio, honako bi aukera hauen artean: a) BAI ala b) EZ; izan ere, lehenengo produkzio-data honetan T langile trebatuen koalizioak ezin baitu endogenoki sartu, merkatuaz ez baitu nahikoa ikasi. Zehatz dezagun:

a) T-k BAI erantzungo balu akordioa inplementatuko litzateke; hau da, K eta H inbertsioak gauzatuko lirateke, enpresak produzitu egingo luke, E enpresariak $S - W_1 \geq \Pi$ jasoko luke (lehenengo produkzio-datan), eta T koalizioak W_1 eskaintza bereganatuko luke (lehenengo produkzio-datan). Kasu honetan jokia bigarren produkzio-datarantz igaroko litzateke.

b) T-k EZ erantzungo balu enpresa ez litzateke azkenean abian jarriko, produkzioa ez litzateke burutuko, E-k bere erreserba-irabazia II jasoko luke (bere kapitala beste industria batean inbertituz), eta T-k bere erreserba-soldata Lw_t jasoko luke (langileek euren lan tratatua beste industrietan aplikatuz). Kasu honetan jokua bertan amaituko litzateke.

2.6.2. Bigarren produkzio-data

(i) Bigarren produkzio-data honen lehenengo etapan E jokalaria T-ri egin beharko dio soldata-eskaintza berri bat: $W_2 \in [0, S-II]$, aurreko produkzio-datan egiten zuen bezalaxe. S lehenengo berdina da, zeren bigarren produkzio-datan ekoizteko berriro K eta H inbertsioak egin beharko liriateke (makineria zaharkitzeaz gain berrikuntza teknikoa dago, eta langile trebatuak eten gabeko prestakuntzan aritu behar dira), eta II enpresariaren erreserba-irabazia ere ez da aldatzen.

(ii) Bigarren produkzio-data honen bigarren etapan (lehenengo datan ez bezala) T langile trebatuen koalizioak merkatura endogenoki sartzeko aukera izango luke (eskarmentatuta daude eta merkatuaz nahikoa informazioa jaso dute). Langileria ez da produkzio-data honetan ordezkagarria, eta enpresa lehiakidea antolatuko balu merkatuaren monopolista bihurtuko litzateke. Hauxe da lehenengo produkzio-datarekiko aldatzen dena, langileriaren boterea.

Zehaztuz, baldin eta $p > 0$ bada, orduan erantzuna izan daiteke: (a) BAI, (b) KAP edo (c) KOOP. Alternatiboki, baldin eta $p = 0$, orduan erantzuna soliki (a) BAI edo (c) KOOP izan liteke. Ikus ditzagun aukera horiei dagozkien xehetasunak:

a) BAI erantzunez gero, langile trebatuek enpresariaren eskaintza onartuko lukete. Horrek ekarriko luke enpresariak beharrezko inbertsioak egingo lituzkeela, eta produkzioa burutuko litzatekeela. Langileek W_2 jasoko lukete, eta E-k $S-W_2$ jasoko luke (produkzio-data honetan).

b) KAP erantzunez gero, interpretatuko dugu langile trebatuen koalizioa elkarte kapitalista bat sortuz merkaturatu dela, behin pL langile ez-trebatu lan-merkatuan kontratatutakoan. Esan nahi baita, langile trebatuek orain enpresaren zuzendariak edo teknikoak izateaz gain, jabeak ere badirela, eta $L + K$ inbertsioa euren egin dutela, eta langileak kontratatu dituztela euren elkarte kapitalistan. Mehatxua gauzatu balitz enpresa-amak ezingo luke langilego tratatua data horretan bertan ordezkatu (argudiatu dugunez), eta enpresa berriaren sarreraren ostean merkaturatik at geldituko litzateke (gogoratu monopolio naturala dela). Era honetan T bazkide kudeatzaile-jabeen ordaina S litzateke, eta E-k produkzio-data honetan II jasoko luke (beste industria batean inbertituz).

c) $p > 0$ izanik, langileek KOOP erantzungo balute, interpretatu beharko genuke langile trebatuek langile ez-trebatuekin batera enpresa kooperatiboa eratzea erabaki dutela, eta $H + K$ inbertsioak amankomunean egin eta gero, S kantitatea langile guztien artean banatu behar dutela. Beraz, langile trebatuen koalizioak $S/(L+(pL)) = S/(1+p) < S$ eskuratuko luke. Bestalde, $p = 0$ izanik langileriak bere sindikatuaren bidez KOOP aukeratuko balu, T-k S jasoko luke (bazkidego kooperatibo bihurtuta) eta E-k bere erreserba-irabazia II jasoko luke (gogoratu

enpresariak langileria trebatu berria bat-batean ordezkatzetik ez duela eta, hortaz, merkatu horretatik landa geldituko litzatekeela).

2.6.3. Pagamenduak

Jokalarien pagamendua bi produkzio-datetan jasotako azpipagamenduen batuketa da. Kalkuluak errazteko ez dugu denbora deskontatuko.

2.6.4. Oreka kontzeptua

Erabiliko dugun oreka kontzeptua oreka-azpijoku perfektua da.

2.7. Eraitza

2.7.1. Proposizioa

Baldin eta $p > 0$ bada, hauxe gertatuko da orekan: aurreneko produkzio-datan E-k $W_1 = Lw_t$ eskainiko dio T-ri, eta T-k onartu egingo du; eta bigarren produkzio-datan E-k edozein eskaintza eginda ere, T endogenoki elkarte kapitalista modura (KAP) merkaturatuko da.

Baldin eta $p = 0$ bada, hauxe gertatuko da orekan: aurreneko produkzio-datan E-k $W_1 = Lw_t$ eskainiko dio T-ri, eta T-k onartu egingo du; eta bigarren produkzio-datan E-k edozein eskaintza eginda ere, T endogenoki elkarte kooperatibo modura (KOOP) merkaturatuko da.

2.7.2. Frogantza

$p > 0$ deneko kasua aztertuko dugu aurrena. Bigarren produkzio-dataren bigarren etapan T-k ez du onartuko berak endogenoki sartuz, bere buruari aseguera liezaiokeen kantitate maximoa baino gutxiago, eta kantitate maximo hori S da KAP aukeratuz; izan ere, $p > 0$ denean, KOOP aukeratuz gero, langile trebatuek S kantitate hori langile ez-trebatuekin banatu beharko lukete, eta hori ez da eurentzako onuragarria.

Beraz, E enpresariak bigarren produkzio-data horren lehenengo etapan, gutxienez S eskaini beharko lioke T-ri, honek KAP ez aukeratzeko. Baina E-k bigarren produkzio-dataren aurreneko etapan ezin dio langile trebatuen sindikatuari S eskaini (gogoratu enpresariak bere buruari erreserba-irabazia ziurtatzearen gehienez $S - \Pi$ eskaini liezaiokeela T-ri). Hortaz, bigarren produkzio-datan E-k T-ri egin diezaiokeen edozein soldata-eskaintza eginda ere, T-k ezetz erantzungo dio, eta elkarte kapitalista gisara merkaturatuko da.

Gauzak honela (enpresariak aurreikus dezake lehiakide endogenoa sartuko zaiola bigarren produkzio-datan), E-k lehenengo produkzio-datan bere irabazi-aukera izan beharko du, enpresariari enpresa bultzatzea interesa dakion, eta, beraz, jokuak interpretazio egokia izan dezan. Hain zuzen, hala gertatzen da, zeren aurreneko produkzio-datan T-k ez baitu endogenoki sartzeko inolako aukerarik (oraindik ez du behar beste ikasi), eta hor dauka E-k bere irabazpidea. Izan ere, T-k onartuko du E-ren edozein eskaintza non gutxienez bere erreserba-soldata ematen zaion; hau da, onartuko du edozein W_1 non $W_1 \geq Lw_t$. Bistan denez, eskaintza Lw_t baino txikiagoa bada, langile trebatuen sindikatuak ezetz

erantzungo du, izan ere, langile horiek lan-merkatuan Lw_t eskura bailezake. “Hartu ala utzi” negoziazio honetan (ultimatum jokuaren bertsio bat da) E-k irabaziak maximotuz $W_1 = Lw_t$ eskainiko dio T-ri eta honek onartuko du (oreka perfektuan).

Guztira E jokalaria enpresa bultzatuko balu lehenengo produkzio-datan $S - Lw_t > \Pi$ jasoko luke, eta bigarrenean bere erreserba-irabazia Π lortuko luke (T jokalaria bien artean $Lw_t + S$ jasoko luke). Hori dela eta, orekan enpresariari enpresa eratzea interesatzen zaio, nahiz eta aurreikusi bigarren produkzio-datan sarrera endogeno kapitalista gauzatuko zaiola. Oreka perfektuan, beraz, sarrera endogeno kooperatiboa gauzatu egingo da.

Antzera argudiatuz $p = 0$ denean, T-k bigarren datan bere buruari S asegura diezaiokoe KOOP aukeratuz (orain KAP aukerarik ez da, kapital fisikorik ez baita behar). Hortik aurrera froga aurrekoaren antzekoa da, bi jokalariek pagamendu berdinak lortuko dituztelarik. Oreka perfektuan, beraz, sarrera endogeno kooperatiboa gauzatu egingo da.

3. Konklusioa

Produkzio-data bat baino gehiago kontsideratu dugun eredu simple batean erakutsi da nola sarrera endogeno kooperatiboa zein kapitalista gerta daitezkeen orekan. Gure ereduan ailega liteke produkzio-data bat non enpresariak ezin izango duen ekidin bere lehiakide endogenoaren mehatxuaren gauzapena (bere erreserba-etekinari uko egin nahi ez badio). Merkaturatze endogenoa oreka perfektuan gertatzeko, bi elementu azpimarratu nahi nituzke:

- Denbora: denboran zehar lehiakide endogenoaren aukera alda liteke eta hasieran ezinezkoa zena gero egingarri bihurtzeko. Argudiaketa horren ildotik, enpresari batentzat momentu batean onuragarria dena denboran zehar galgarri bihurtzeko.
- Giza kapitala: giza kapitala, langileengan uztartzen denean, hots, “jantzita” eraman dezaketenean (Becker-en erako kapital humanoa, beraz) oso elementu interesgarri bihurtzen da lehiakidetza endogenoaren erlazio-modu honetan. Zeren giza kapitala duten langileak ez baitira askotan izanen errazki ordezkarriak (eta are gutxiago giza kapital osagarriak dituen langileriak) eta horrek langileriari abantailaz endogenoki sartzeko aukera eman diezaiokoe.

Bestalde, eredu honetan erakusten da nola enpresa instalatu baten langileria-aren heterogeneotasunak (edo homogeneotasunak) baldintza dezakeen lehiakide endogenoaren enpresa-aukera (kapitalista ala kooperatiboa). Sarrera endogenoa gauzatze aldera langile trebatuek ez dute enpresaren irabazia langile ez-trebatuekin banatu nahi, eta horregatik, langile ez-trebatuak behar izanez gero lan-merkatuan kontratatuko dituzte (enpresa kapitalista batean). Aldiz, langile ez-trebatuen beharrik ez balitz, arazo hori desagertu egingo litzateke eta enpresa kooperatiboa eratuko litzateke era naturalean.

Erreferentziak

- Bain, J. (1956): *Barriers to New Competititon*, MA: Harvard University Press, Cambridge.
- Bárcena-Ruiz, J. C. eta Rubio, J. (2000): "Withholding of information as an endogenous entry barrier", *Annals d'economie et de statistique* **58**, 185-194.
- Castaño, J. (1995): *La Sociedad Cooperativa Al Día* **46**, 6.
- Deia, (1991): Abenduak 11, 21. or.
- Egunkaria, (1992): Urtarrilak 23, 13. or.
- Pakes, A. eta Nitzan, S. (1983): "Optimum contracts for research personnel, research employment, and the establishment of 'rival' enterprises", *Journal of Labor Economics* **1**, 345-365.
- Rubio J. (1996): "Endogenous potential entrant", in M. Sertel (arg.), *Workers' enterprises: alternative in privatization*, North-Holland (Elsevier), Amsterdam, 17-34.
- , (1999): "¿Empresario capitalista o trabajador cooperativo?", in B. Bakaikoa (arg.), *Estudios sobre economía social y derecho cooperativo*, GEZKI-Marcial Pons, Madril, 21-32.
- Sexton, R.J. eta Sexton, T.A. (1987): "Cooperatives as entrants", *Rand Journal of Economics* **18**, 581-595.
- Stewart, G. (1991): "Strategic interactions involving profit-maximising and labour-managed firms", *Oxford Economic Papers* **43**, 570-583.
- , (1994): "Capitalists and workers: Knowledge and the strategic role of investment within the firm", *European Economic Review* **38**, 1779-1797.